

Jon Erguin Lasa Foroak uretako segurtasunaren kultura bultzatuko du

Bidelagun programaren barruan dago ekimena, eta jarraipena izateko bokazioarekin sortu da, prebentzioa sustatzeko eta itotzeko arriskuak murrizteko

Ur-inguruneetako segurtasunaren inguruan elkartzeko, hausnartzeko eta sentibilizatzeko gune berri bat izango du Donostiak aurten. Datorren ostegunean, ekainaren 18an, 18:30ean, Ur-inguruneetako segurtasunari buruzko Jon Erguin Lasa foroaren lehen edizioa egingo da Anoetako estadioko auditorioan. Prebentzioa, prestakuntza eta herritarren kontzientziak sustatzeko asmoz sortu da ekimen hori.

Foroak Jon Erguin Lasa donostiar gaztea omentzen du. Kirolarekin lotura estua zuen eta 2022an hil zen, igerileku batean jarduera fisikoa egiten ari zela. Haren oroitzapenak pizten du sentibilizazioa eta ikaskuntza istripuak saihesteko eta bizitzak salbatzeko tresna bihurtu nahi dituen ekimena.

Iñaki Gabarain Kiroletako eta Bizitza Osasungarriko zinegotziak nabarmendu duenez, “foro hau bi helbururekin sortu da: Jon Erguin Lasaren oroitzapena bizirik mantentzea eta herritarrek ezagutza eta baliabide gehiago izan ditzaten laguntzea, edozein ur-ingurunetan segurtasunez moldatzeko”. Halaber, esan du “prebentzioa dela arriskuak murrizteko eta tragediak saihesteko daukagun tresnarik onena, eta, horregatik, funtsezkoa dela gizarte osoari irekitako hausnarketa- eta prestakuntza-espazioak sortzea”.

Uretako segurtasuna osasun publikoaren erronka garrantzitsua da. Espainiako Salbamendu eta Sorospen Errege Federazioaren datuen arabera, 471 pertsona hil ziren nahita ez itota Espainian 2024an. Egoera horren aurrean, foro berriak autobabeserako benetako kultura sustatu nahi du, eta arriskuen identifikazioan, jokabide seguruetan eta larrialdietan erantzuteko gaitasunean oinarritu nahi du.

Salbamenduaren eta prebentzioaren arloan erreferentzia diren bi espezialistak hartuko dute parte jardunaldian. Eduardo Blasco de Imazek, salbamendu eta sorospeneko munduko txapeldunak, kirol salbamenduak hezkuntza eta kontzientziak tresna gisa duen zereginaz hitz egingo du. Bestalde, Xabier Aramburu Iturzaetak uretako segurtasuna aztertuko du, formazioaren, prebentzioaren eta erantzukizun partekatuaren ikuspegitik.

Besteak beste, gai hauek landuko dituzte: hondartzetako, igerilekuetako eta ibaietako prebentzioa, haurren ikuskapena, arrisku-egoeren detekzio goiztiarra,

Prentsa oharra

Nota de prensa



segurtasunik gabeko jokabide ohikoenak eta larrialdietan jarduteko oinarritzko protokoloak.

Gabarainek azpimarratu duenez, “foro hau erreferentziazko hitzordu bihurtu nahi dugu kirolari, profesional, erakunde eta herritarrentzat, ezagutza partekatzeko eta gizarte kontzienteago, prestatuago eta uretako segurtasunarekin konprometituago baterantz aurrera egiten jarraitzeko gune bat”.

Jarduera hau Donostia Kirolaren Bidelagun programaren eta Rural Kutxaren Gizarte Ekintzaren parte da.



Donostia
Kiro**la**

